

PERSEFONEK EZ DU HITZ EGITEN / PERSÉFONE NO HABLA



GENTZ DEL VALLE

Antolatzailea // Organiza

Irungo Udala. Kultura eta Kirol Arloa
Ayuntamiento de Irun. Área de Cultura y Deportes

Komisariotza // Comisariado

María José Aranzasti

Testuaren egilea // Autora del texto

María José Aranzasti / Gentz del Valle

Argazkiak // Fotografías

Idoia Unzurrunzaga / Gentz del Valle

Diseinua // Diseño

typo90

Argitaratzailea // Editor

Irungo Udala. Ayuntamiento de Irun

Gordailu legea // Depósito legal

SS-631-2019

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

GENTZ DEL VALLE

PERSEFONEK EZ DU HITZ EGITEN / PERSÉFONE NO HABLA

SALA MENCHU GAL

2019KO EKAINAREN 7TIK IRAILAREN 8RA
DEL 7 DE JUNIO AL 8 DE SEPTIEMBRE DE 2019

IRUN - 2019



PERSEFONEK EZ DU HITZ EGITEN PERSÉFONE NO HABLA

*Bailarako espiritua ez da hiltzen.
Eme misteriotsua da.
Misteriozko femeninoaren atea
unibertsoaren erroa da.
Etengabe jarraitzen du
bere obra, nekerik gabe.
(Tao-Te-Ching)*

*El espíritu del valle no muere.
Es la hembra misteriosa.
La puerta de lo misterioso femenino
es la raíz del universo.
Ininterrumpidamente, prosigue
su obra sin fatiga.
(Tao-Te-Ching)*

Barrutik, atzetik, azpitik: zenbat modutan jotzen du zugana barraskilo batek, hodei batek, ezezagun batek?

Hitzetatik harago, honago, benetan ahaztu duzu?

Persefonek ez du hitz egiten lana zauden lekura, gauden lekura egindako bidaiari buruzko lan bat da, non joan-etorria barruan egiten den kanpoan egin ordez; eta haren helmugak zerikusi handiagoa du jatorriarekin aurrerabidearekin baino.

Azaldu ordez entzuteko burubide bat da, hitzei ihes egiten zaien oro aditzekoa eta nor bere baitan biltze kultural gero eta bereganatzaileago horretatik irtetekoa, arretarik ipintzen ez diegun gauzetan aurkitzen baita gehien behar dugun informazioa.

Gentz del Valle, 2019.

Desde dentro, desde detrás, desde debajo: ¿de cuántas maneras se dirige a ti un caracol, una nube, alguien desconocido?

Más allá, más acá de las palabras, ¿de verdad lo has olvidado?

Perséfone no habla es un trabajo sobre el viaje al lugar en el que te encuentras, en el que nos encontramos, donde el desplazamiento que se lleva a cabo es interno en lugar de externo, y su destino tiene más relación con el origen que con el progreso.

Es una exhortación a escuchar en lugar de explicar, a atender a todo lo que escapa a las palabras, y a salir de nuestro ensimismamiento cultural cada vez más acaparador, porque suele ser en las cosas en las que no nos fijamos donde se encuentra la información que más necesitamos.

Gentz del Valle, 2019.















































GENTZ DEL VALLEREKIN HIZKETAN

EDO MUNDUAREN IKUSPEGI POETIKOA

Maria Jose Aranzasti: Persefonek ez du hitz egiten, erakusketa honen izenburu hain iradokitzaileak Greziako mitologiara garamatza zuzenean, Zeusen eta Demeteren alabarengana, zeina Hadesek bahitzen duen eta berarekin ezkontzera behartzen duen, zerk bultzatu zaitu hain izenburu espezifikoa aukeratzera?

Gentz del Valle: Izenburua giltza txiki bat da lan hau sartzeko, eta testu labor batekin lagutzen dut. Femeninoaren irudietako bat da Persefone, mitologia patriarkalak berrinterpretatu ondoren. Bistan da komunikatzeko modu bat adierazten duela, irudiak gure inkontziente kulturallean oso hezurramitutako ideia gisa interpretatzeko eta pentsatzeko modu bat.

MJA: Zure obran sartuta, beti errepikatzen dira elementu batzuk: Natura irudi eta aldagai ugaritan, ura, estalki eta lits desberdinak, paisaia ... hainbat piezatan ikusi dezakegun bezala; batzuk aipatzearen: Irradiaciones I eta II, Travesías I eta II, Pozo, Vehículo I, Interlocutores ...

GV: Natura ohiko erreferente bat da nire lanean. Elementu begetalak, formazio organikoak, hari zintzilikiariak, estalkiak, litsak, ilea, eta abar. Elementu horiek guztiak ez dute oso egitura sendorik. Adibidez, ura maiz agertzen da nire lanean, elementu dinamiko bat bezala; dabil, ez du egitura finkorik, eta hiru egoerak onartu ditzake: solidoa, likidoa eta gaseoso; batere lineala eta egonkorra ez den izateko modu bat irudikatzen du horrek. Elementuen esanahi eta konnotazioek inplizituki jarduten dute irudietan, nahiz eta horiek heredatu ditugun interpretazioek zehaztuta edo mugatuta dauden, zeren argi baitaukat ezin garela joan gauden kultur sistematik harago, horren erroen, bere izaeraren jatorriaren jakitun garenean izan ezik.

MJA: Eta mendiak, horiek ere presentzia handia izan baitute zure erakusketetan?

GV: Areto handiko hondoa hartzen duen iruditik moldatzen hasi zen erakusketa hau. Abismo obrak orain arte zibilizaziorik suntsigarriena izan den gure zibilizazio honen ispilu-jokoaren aurrean jartzen gaitu, eta haren islan begiratzera behartzen gaitu, mugaren bertigora gerturatzeko gaituen espazio bat bezala, zeinetan ingurunea eta geure burua ere behartzen ari garen.

Bidaia baten ingurukoa da erakusketa hau. Bidaia hori areto handian agertzen da, garai hau bizitzea egokituz zaion artista baten ikuspegitik. Izan ere, artistak munduarekin harremana izateko moduen hondarretara jotzen du, mundu horren kutsuak, arrasto ahulak soilik heldu baitzaizkio, zibilizazio-ideia basati eta oldarkorki suntsitzailearen aurrean. Areto honetan, bidaiaren irudiak agertzen dira (*Vehículo I y II*), eta baita bidaia hori egiteko trepetxuak ere (*Vehículo I, II y III*); horiek guztiak, zaugarri eta hauskor gisa eta dudazko eragin kortasunez. Zeharkaldiek bide egiten dute areto txikira. Han egon behar luke erantzunak, baina hautsita, joa, arriskuan, hutsaldua agertzen da hori. Basoak landaketak dira errealtatean, askotan geuk

HABLANDO CON GENTZ DEL VALLE

O UNA VISIÓN POÉTICA DEL MUNDO

Maria José Aranzasti: Perséfone no habla, el título tan sugerente de esta exposición nos remite directamente a la mitología griega, a la hija de Zeus y Deméter a quien Hades rapta y la obliga a casarse con él, ¿cuál es la motivación que te ha llevado a elegir ese título tan específico?

Gentz del Valle: El título es una pequeña clave para introducir este trabajo y lo acompaño de un breve texto. Perséfone es una de las imágenes de lo femenino, después de ser reinterpretada por la mitología patriarcal. Hace referencia, evidentemente a una forma de comunicar, a una forma de pensar y de interpretar las imágenes como ideas muy encarnadas en nuestro inconsciente cultural.

MJA: Adentrándonos en tu obra se encuentran siempre elementos recurrentes: la Naturaleza en múltiples representaciones y variantes, el agua, diferentes velos y flecos, el paisaje... tal como podemos apreciar en las piezas *Irradiaciones I y II*, en las *Travesías I y II*, en *Pozo*, en *Vehículo I*, en *Interlocutores*...

GV: La naturaleza es un referente habitual en mi trabajo. Los elementos vegetales, formaciones orgánicas, hilos colgantes, velos, flecos, pelo, etc., todos esos elementos carecen de una estructura demasiado sólida. Por ejemplo, el agua aparece a menudo en mi trabajo, como un elemento que es dinámico, fluye, no tiene una estructura fija, y puede asumir los tres estados: sólido, líquido y gaseoso, lo cual representa una forma de ser nada lineal ni estable. Los significados y las connotaciones de los elementos actúan implícitamente en las imágenes, aunque éstos están definidos o limitados por las interpretaciones que hemos heredado, ya que tengo claro que no podemos ir más allá del sistema cultural en el que estamos, salvo que nos hagamos conscientes de sus raíces, del origen de su naturaleza.

MJA: ¿Y las montañas, que siempre han tenido una gran presencia en tus exposiciones?

GV: Esta exposición comenzó a desenvolverse desde la imagen que ocupa el fondo de la sala grande. La obra *Abismo* nos pone frente al juego de espejos de nuestra civilización, la más destructiva hasta la fecha, y nos obliga a mirar en su reflejo, como un espacio que nos aboca al vértigo del límite, al cual estamos forzando al entorno y a nosotros mismos.

Esta exposición gira en torno a un viaje. Este viaje aparece en la sala grande desde el punto de vista de una artista a la que le ha tocado vivir esta época y que recurre a los restos de formas de relación con el mundo de los que sólo le han llegado reminiscencias, débiles huellas, frente a una idea civilizatoria brutal, agresivamente destructiva. En esta sala aparecen imágenes del viaje (*Travesía I y II*) y de los pertrechos para llevarlo a cabo (*Vehículo I, II y III*), todos ellos manifestándose como vulnerables, frágiles y de dudosa efectividad. Las travesías dan paso a la sala pequeña, donde debería estar

sortutako gaixotasunez beteak. Basatiak apenas biziraun dezakeen gure inperio zibilizatzailearen gero eta marjina estuagoetan. Hala adierazten dute areto txiki honetako piezek. Ahaztu egiten dugu munduari egiten diogun guztia geure buruari egiten diogula, nahiz eta salbu gaudela uste izan. Gu natura gara, baina jabetze- eta harrapakatze-, eta gailentze- eta banantze-historia bat kontatu diogu gure buruari. Eta sinetsi egin dugu. Hori da arazoa.

MJA: Marrazkiak, instalazioak, argazkiak, oihalak, eskulturak... Aniztasuna eta diziplina aniztasuna, konstanteak dira zure ibilbide artistiko osoan, oso irudi indartsuak eraikiz.

GV: Nire ustez, nik egiten dudana ez da ez marrazkia, ez eskultura, ez pintura. Irudiak dira. Nik irudietan lan egiten dut, eta irudiak, niretzat, hiru dimentsiotakoak, bikoak izan daitezke, eta mugimendua eduki dezakete. Irudiak ideiak dira, nahiz eta gaur egun oso azaleko zerbait irudikatzen duten. Irudietan erabat itota bizi gara, baina horrek ez du esan nahi ulertzen ditugunik edo konturatzen garenik noraino eta zein zentzutan eragiten diguten. Oraindik bere benetako ahala erabiliz jardun daitekeen gordelakueta bat da artea, azalpenetan eta diskurtso justifikatiboetan jausi ezean. Munduarekin –azken batean, errealitatearekin– harremanetan nagoenean sortzen zaidan erantzuna delako lan egiten dut artean; munduarekiko harreman poetikoa dela esan nezake.

MJA: Errizomatikoa ere agertzen da, eta epai bat: “errealitatea onartu”.

GV: Errizomatikoa dena, begetala dena; oro da irudikatzen modu bat. Eta bai, batzuetan gustatzen zait esaldiak eta hitzak sartzea, erlazioak bilatuz. Gertatzen ari denaren pentzutan lan egiten dut, eta horrek prozesuaren erdian aldatu dezake lan baten ibilbidea, agertuz doan materiala alde zurretik pentsatutako ideiarekin bat ez datorrelako. Hori gertatu zitzaidan, adibidez, *Vehículo I* piezan. Izaera kontzeptualagoko planteamendu batek joera du pieza aurretik diseinatzen eta noranzko bakarrekoagoan nabarmenarazteko. Amets batean sumatzen dugun bezala ikusi beharko litzateke nire lana. Horretan saiatzen naiz behintzat.

MJA: Zure irudien ahalmena da garrantzitsua. Azken batean, irudiaren ahalmen handia!

GV: Gurearen desberdinak diren beste kultura batzuetako irudiekien erlazioetan naizenean, haien esanahia, benetakoa edo imaginatua, antropologoen nola interpretatzen duten oraindik jakin gabe, askotan, sorpresa sentitzen dut, aurkikuntza bat bezala. Adibidez, kultura aztekako harrian zizelkatutako animalia handiak, matxinsaltoak edo arkakusoak protagonismo- edo garrantzi-mailaren batera jasoak, gure kulturatik erabat aparte. Kontu horrek munduaren ikuspegi oso bestelako batekin harremanetan jartzen zaitu, eta harritu egiten zaitu. Hori da irudiak duen ahalmena, eta hain da horrela, ezen haien esanahi posiblez informazioa ematen dizuten azalpen laburrek igual ez dute lortzen harridura hori, ezezaguna gertatzen zaizun horretarantz irekitze hori, desaktibatzea ere, nahiz eta oro har joera izaten duten, esan dugun bezala, hain zuzen ere horixe egiteko: zuri mundu hori berehala ixten dizun azalpen bat eman. Ez naiz gai, eta ez dut asmorik beren sortzaileek egiten zuten moduan ulertzeko,

la respuesta, pero ésta aparece a su vez fracturada, agredida, en peligro, desvirtuada. Los bosques son en realidad plantaciones, a menudo plagadas de enfermedades provocadas por nosotros mismos, lo salvaje apenas puede sobrevivir en los márgenes cada vez más estrechos de nuestro imperio civilizatorio. Las piezas de esta sala pequeña así lo indican. Olvidamos que todo lo que hacemos al mundo nos lo hacemos a nosotros mismos, aunque nos creamos a salvo. Nosotros somos naturaleza pero nos hemos contado una historia de dominio y depredación, de supremacía y separación. Y nos la hemos creído. Ése es el problema.

MJA: Dibujos, instalaciones, fotografías, telas, esculturas... Diversidad y multidisciplinaridad unas constantes en toda tu trayectoria artística en las que construyes imágenes muy potentes.

GV: Para mí lo que yo hago no es dibujo, ni escultura, ni pintura. Son imágenes. Yo trabajo en imágenes y las imágenes para mí pueden ser tridimensionales, bidimensionales y pueden tener movimiento. Las imágenes son ideas, aunque en la actualidad representen algo muy superficial. Vivimos completamente ahogados en imágenes pero eso no significa que las comprendamos ni que nos demos cuenta de hasta qué punto nos influyen y en qué sentido. El arte es uno de los reductos en los que todavía se puede actuar utilizando su auténtico poder, si no se sucumbe a las explicaciones y los discursos justificativos. Yo trabajo en arte porque es la respuesta que me surge cuando me relaciono con el mundo, con la vida, en definitiva, con la realidad, lo podría denominar como una relación poética con el mundo.

MJA: También aparece lo rizomático y una sentencia: “errealitatea onartu” (“aceptar la realidad”).

GV: Lo rizomático, lo vegetal, todo hace referencia a una manera de imaginar. Y sí, me gusta a veces meter frases y palabras, buscando relaciones. Trabajo a merced de lo que va ocurriendo, y eso puede cambiar la trayectoria de un trabajo a mitad del proceso, porque el material que va apareciendo no se lleva bien con la idea preconcebida. Esto me ocurrió, por ejemplo, con la pieza *Vehículo I*. Un planteamiento de carácter más conceptual, tiende a rediseñar la pieza y a hacerla significar de forma más unidireccional. Mi trabajo debería verse como percibimos en un sueño. Al menos eso es lo que intento.

MJA: Lo que es importante es el poder de tus imágenes. En definitiva ¡el gran poder de la imagen!

GV: Cuando me relaciono con imágenes de culturas distintas a la nuestra sin saber aún la interpretación de su significado, real o imaginado por los antropólogos, siento a menudo una sorpresa, como un descubrimiento. Por ejemplo, los grandes animales esculpidos en piedra de la cultura azteca, saltamontes o pulgas elevados a algún grado de protagonismo, de importancia, completamente ajena a la de nuestra cultura. Esa cuestión te pone en contacto con una visión del mundo muy distinta que te sorprende. Ese es el poder que tiene la imagen, hasta el punto de que las explicaciones sucintas que te informan de sus posibles significados pueden incluso no conseguir desactivar ese asombro, esa apertura hacia lo que te resulta

baina bitartekotza horretan ere, gurekin orainean komunikatzeko sortzen da mundu horretatik irudia. Mundua bete modu batzuetara begiratzeko eta irudikatzen eta harekin beste modu batera erlazionatzen irakatsi diezaguketen hizkuntzak, kulturak. Zoritxarrez, guztiak suntsitzen ari gara.

MJA: *Beti dago presente krisi-faktore bat zure ibilbide osoan.*

GV: Beti ari naiz krisitik lanean, agerian utziz. Hain kontrolatzailea den sistema kultural honen bidez halako homogeneotasun, globalizazio, asimilazio puntura iritsi gara, non interpelatzen duen edozein planteamendu, diskurtso edo jarduera berehala prozesatu eta asimilatzen den bere logika propioaren barruan. Benetan merezi du zalantzan jartze horrekiko erresistentzia horren aurrean erreakzionatzen saiatzea.

MJA: *Hydrari buruzko artikulua bat idatzi berri dut, eta nire buruari galdetzen diot munstroak zergatik diren beti femeninoak. Munstro gisa agertzen gara.*

GV: Sistema patriarkala boterean oinarritzen den egitura hierarkiko bat bezala da, botere basatikoak, bestea esplotatzeko eta harengandik aprobetxatzeko, menperatzeko. Eta eskura dituen maila eta modu guztietan egiten du. Botere hori zalantzan jartzen duen oro barregarri bihurtzen dute, bota egiten dute, suntsitu edo Bestea bihurtu, abaildu beharreko etsaia. Zalantzarik gabe, aurrerapauso konkistatzailea zabaltzen zen bitartean, aurreko kultur moduak edo arrotzak, atzerrikoak, jabe berrientzako lausengarri ziren terminoetan ordeztzen ziren eta berriz interpretatu. Haien jainkoak, sinesmenak eta bizimoduak baztertu eta erabateko asimilazioa gauzatu behar zen. Hori indarkeriaren bidez eta esanahia aldatuz egin da. Ikasgelako larderiatsuen jokabidea zen zibilizazio-eskalan. Horrela, bada, antzinako botere-irudi femeninoak munstro bihurtu zituzten, izaki erdeinagarriak edo gizarte honetan emakumei emandako rol etxekotuaren sinboloak. Mundu patriarkaleko munstroak etxekotu gabeko botere femeninoaren irudiak dira. Hala ere, debekuak debeku, umilazioak gorabehera, eta emakumeen aurkako gerra kulturean baliabide ugari erabiltzen badituzte ere, garrantzitsua da nabarmentzea botere femeninoarekiko antzinako mirespenak bizirik dirauela, adibidez, Mediterraneoko herrietako Ama Birjinaren gurtza, batez ere, non gizarte matristikoen edo matrilinealen bizirik iraun zuten hasiera batean, nahiz eta haren esanahi judeokristaua hain zuzen ere haren zentzu primitiboa, jatorrizkoa ukatzeko eraiki den. Esanahi ukatzaileen eta sinkretisten jalkinetan zulatu beharra dago pixka bat, hori ikusteko. Jatorriaren iraunkortasuna, esango nioke nik.

desconocido, aunque generalmente tiendan, como ya hemos comentado, a hacer precisamente eso, a dar una explicación que cierra de inmediato ese mundo para ti. No soy capaz, ni pretendo entenderlas de la forma en la que lo hicieron sus creadores, pero aún en esa indeterminación, la imagen surge de ese mundo para comunicarse con nosotros en el momento presente, lenguas, culturas, que nos podrían enseñar otras formas de mirar e imaginar el mundo y de relacionarnos con él. Desgraciadamente, las vamos destruyendo todas.

MJA: *Siempre hay un factor de crisis presente a lo largo de tu trayectoria.*

GV: Siempre estoy trabajado desde la crisis, evidenciándola. Hemos llegado a un punto de homogeneidad, de globalización, de asimilación a través de este sistema cultural tan controlador, en el que cualquier planteamiento, discurso, o actividad que lo interpele es inmediatamente procesado y asimilado dentro de su propia lógica. Reaccionar a esta resistencia al cuestionamiento es algo que merece la pena intentar.

MJA: *Acabo de escribir un artículo sobre la Hydra, en el que me pregunto por qué los monstruos son siempre femeninos. Aparecemos como monstruos.*

GV: El sistema patriarcal se instituye como una estructura jerárquica basada en el poder, un poder brutal, de aprovechamiento y explotación del otro, de dominio. Y lo hace en todos los niveles y formas a su alcance. Todo aquello que cuestiona ese poder, es ridiculizado, expulsado, exterminado o convertido en el Otro, el enemigo a abatir. Indudablemente mientras el avance conquistador se extendía, las formas culturales anteriores o extrañas, extranjeras, eran sustituidas y reinterpretadas en términos halagüeños para los nuevos amos. Sus dioses, creencias y formas de vida debían dar paso a una asimilación total. Esto se ha hecho a través de la violencia y del cambio de significado. Es el comportamiento del abusón de la clase a escala civilizatoria. Así que las antiguas imágenes femeninas de poder fueron convertidas en monstruos, en seres despreciables o en símbolos del papel domesticado correspondiente adjudicado a las mujeres en esa sociedad. Las monstruos del mundo patriarcal son las imágenes del poder femenino sin domesticar. Aún así, a pesar de las prohibiciones, la humillación, y el largo etcétera de recursos utilizados en la guerra cultural contra las mujeres, es importante destacar la pervivencia de la antigua veneración al poder femenino, por poner un ejemplo, en el culto a la Virgen en los pueblos del Mediterráneo, sobre todo, donde las sociedades matristicas o matrilineales pervivieron en un principio, aunque el significado judeocristiano de ésta se haya construido precisamente para negar su sentido primitivo, original. Hay que cavar un poco a través de sedimentos de significados negadores y sincretistas para verlo. La persistencia del origen, lo llamaría yo.

“GU NATURA GARA BAINA AHAZTU EGIN DUGU. HOR DAGO ARAZOA”

Dagoeneko hiru hamarkadatik gorako ibilbide artistikoa duen Gentz del Valle (Lekeitio, 1957) artistak egin dituen azken erakusketek berretsi egiten dituzte Nelly Richard-en teoriak, non erronka “begiradari ohitura utzaraztea den”¹. Teoriko kultural, kritikoa eta saiogile honek bere buruari galdetzen dio ea guztiak pisua galtzen badu eta hutsaltzen bada, “zer paper duen arteak” eta hemen ere, diskurtso horretan jartzen gaitu Gentz del Vallek, **Persefonek ez du hitz egiten** erakusketako obren bidez, argazki, marrazki, instalazio eta eskulturan irudikatuta, aipatutako saiogileak bezala, begirada pertsonal bat artearen, politikaren eta feminismoaren inguruan. Azpimarratu behar da Gentzen lan artistikoa beti ari dela ikertzen eta ahala denaren, femeninoaren nortasuna agertzen, orain larriki zauritua dagoen natura baten barruan. *Persefonek ez du hitz egiten* erakusketarekin, artista berriz murgiltzen da mitologian eta sinboloetan, eta berriz interesatzen da, beti egin izan duen bezala, figura femeninoarekin, bere metafora eta misterioekin. Arte artea ate ireki bat bihurtzen da gai horiekin guztiak modu zuzenagoan konexioan jartzeko.

“Merkatuak agintzen ditu gustu eta lehenetasunak —esaten du Nelly Richard-ek—. Ariketa kritikoak arazo bihurtzen du merkatuak sinplifikatzen duena. Indar hori deszifratzea da kontua —jarraitzen du Nelly Richard-ek— eta zerbaiten alde jokatzeko, kontsumo akritikoaren aurka borrokatzen eta beste irakurketa batzuk aktibatzen irakastea”. Gentzek, bere egite sortzaile pertsonalean eta bere planteamendu artistikoak eszenaratzeko, bere estrategia eraikitzea lortu du, eta guk erakusketa honetan berarekin noraezkoan ibiltzea lortu behar dugu, horrela murgilduta gauden gizarte-ereduak zalantzan jarri ahal izateko. Deituta gaude, Nelly Richard-ek esaten duen bezala, sen ona, formek berez hitz egiten dutelako ideia zalantzan jartzera.

Dagoeneko, 2013an Bilboko Vanguardia Galerian egin zuen *Barruko Mendia/Montaña interna* erakusketa artistak lirismo handiarekin islatzen zuen Natura, estalkien, behe-lainoen, iheskortasunen eta gardentasunen bidez, isiltasun handi baten presentzia indartsuaren ondoan², horiek izan baitira beti bere ibilbide artistikoko konstanteak.

Entzun edo Mapa Ulertu/ Escuchar o entender el mapa (2012) erakusketan, Gentzek arteetik esku hartzen zuen, harrobi batek aurrera egin ahal mendi baten zati bat desagertzearen inguruan gertatutako errealitate bat zalantzan jartzeko: Praileaitz kasu ezaguna³, eta hala gertatu zen, nahiz eta historiaurreko hondakin garrantzitsuak agertu, duela 15.500 urte inguruakoa.

*Inguru Gardenak/Los Paisajes transparentes (2015)*⁴ edo *Baldintzak/Las*

1 Nelly Richard. “La sociedad de consumo y el capitalismo domestican la subjetividad”. El País, Ideas, igandea, 2019ko apirilak 21 2019. Fracturas de la memoria. Arte y pensamiento crítico (2007).

2 María José Aranzasti. <https://www.m-arteyculturavisual.com/2013/02/04/la-montana-interna-de-gentz-del-valle/>

3 <https://amigosdepraileaitz.wordpress.com/>

4 María José Aranzasti. Inguru Gardenak/Paisajes transparentes inpresionatutako beira batzuk dira, egitura zaitu gisa, gure jatorria den naturako elementuen atalena, izar-zatiarena, hormaren aurka instalazio modura eusten diren arboleak. Paisaiaren murmurioa/Cuando el paisaje habla. Donostia, Koldo Mitxelena, 2015. 105. or.

“NOSOTROS SOMOS NATURALEZA PERO LO HEMOS OLVIDADO. AHÍ ESTÁ EL PROBLEMA”

Las últimas exposiciones que ha realizado la artista Gentz del Valle (Lekeitio, 1957) con una ya larga trayectoria artística, de más de tres décadas vienen a corroborar las teorías de Nelly Richard en las que el reto es “desacostumbrar la mirada”¹. Esta teórica cultural, crítica y ensayista se pregunta que si todo pierde peso y se banaliza, “¿qué papel tiene el arte?” y aquí, Gentz del Valle nos pone también en este discurso a través de sus obras de la exposición **Perséfone no habla** plasmando en fotografías, dibujos, instalaciones y esculturas, al igual que la citada ensayista, una personal mirada en torno al arte, a la política y al feminismo. Hay que subrayar que el trabajo artístico de Gentz discurre siempre por la indagación y la identidad de lo débil, de lo femenino, dentro de una naturaleza que ahora está gravemente herida. Con la exposición *Perséfone no habla* la artista vuelve a sumergirse en la mitología y en los símbolos y vuelve a interesarse, como siempre lo ha hecho por la figura femenina con sus metáforas y misterios. Y el arte se convierte en una puerta abierta a entrar en conexión de forma más directa con todas estas cuestiones.

“El mercado dicta los gustos y las preferencias —afirma Nelly Richard—. El ejercicio crítico problematiza lo que el mercado simplifica. Se trata de descifrar esa fuerza—continúa Nelly Richard— y enseñar a tomar partido, de luchar contra el consumo acrítico y de activar otras lecturas”. Gentz, en su personal práctica creativa y en la puesta en escena de sus planteamientos artísticos ha logrado construir su estrategia y nosotros debemos conseguir deambular con ella por las obras de esta exposición y así poder cuestionar los modelos sociales en los que nos vemos inmersos. Estamos llamados, como dice Nelly Richard a cuestionar el sentido común, la idea de que las formas hablan por sí mismas.

Ya en la exposición de 2013 *Barruko Mendia/Montaña interna* en la Galería Vanguardia de Bilbao la artista plasmaba la Naturaleza con un gran lirismo a través de veladuras, nieblas, evanescencias y transparencias junto a la presencia potente de un gran silencio² que han sido desde siempre unas constantes en su trayectoria artística.

En *Entzun edo Mapa Ulertu/ Escuchar o entender el mapa (2012)* Gentz intervenía desde el arte para cuestionar la realidad acaecida en torno a la desaparición de una parte de una montaña junto al avance de una cantera, en el conocido caso Praileaitz³, a pesar de la aparición de importantes restos prehistóricos de hace unos 15.500 años.

*Inguru Gardenak/Los Paisajes transparentes (2015)*⁴ o *Baldintzak/Las condiciones (2019)* 5 fotografías presentes en esta exposición ahondan en la ruptura que hemos hecho con la Naturaleza. “Nosotros somos

1 Nelly Richard. “La sociedad de consumo y el capitalismo domestican la subjetividad”. El País, Ideas, domingo 21 de abril de 2019. En Fracturas de la memoria. Arte y pensamiento crítico (2007).

2 María José Aranzasti. <https://www.m-arteyculturavisual.com/2013/02/04/la-montana-interna-de-gentz-del-valle/>

3 <https://amigosdepraileaitz.wordpress.com/>

4 María José Aranzasti. Inguru Gardenak/Paisajes transparentes son unos vidrios impresionados, a modo de estructuras fragmentadas, de retazos de elementos de la naturaleza, de donde provenimos, de fragmentos de estrellas, de árboles que están apoyados contra la pared a modo de instalación. En Paisaiaren murmurioa/Cuando el paisaje habla. Donostia, Koldo Mitxelena, 2015. Pág. 105

Las condiciones (2019). Erakusketa horretan agertzen ziren 5 argazkik Naturarekin gauzatu dugun hausturan sakontzen dute. "Gu Natura gara, adierazten du irmotasunez Gentz del Valle, baina ahaztu egin dugu. Hor dago arazoa". *Locus amoenus* hartatik, leku idiliko, edeniko, baketsu eta lasai hartatik, erabat utzia dagoen natura abandonatu batera iritsi gara, eta naturak berak aspalditik iragarria du egoeraren benetako larritasuna, Natura eta gure planeta benetako larrialdi-egoeran baitaude. *Zeharkaldi III/Travesía II* obrarekin Gentzek islatzen duen bezalako natura bat, zaborrez betetako kostalde bat, plastikoz bete-bete egindako ozeanoak.

Paradisua hemen ondoan bazegoen, Rosa Olivaresek⁵ esaten duen bezala, *Baldintzak/Las condiciones* obran Gentzek erakusten dizkigun argazki horietan bezalako natura bat dugu, natura nahaspilatu bat, beti inbaditzailea den sasiaren apetara, dena estaltzen baitu, nahiz eta bestalde oraindik ere sumatu litekeen hondakinaren gogorapen erromantikoa.

Amildegil/Abismo (2019) marrazkian, ispiuaren islaren bidez, lehertzen ari den magma handi bat ikusten dugu, espazioa hodei toxiko handi bat balitz bezala inbaditzen duena, Natura nolako arriskuan dagoen ohartarazten diguna. Kaos bat.

Dagoeneko, *Perspectiva* obran (Lekuz kanpo), 2017⁶, Koldo Mitxelena egin zuen instalazio erakargarrian, artistak zalantzan jarrarazten zion ikusleari mundua begiratzeko moduaren inguruan, eta horregatik, esperientzia paregabea eskaintzen zuen⁷, zeren naturaren irudia hormaren zuloetatik bakarrik ikusi ahal baitzen, ez osotasunean.

Orain, *Vehículo I* (2019) erabiltzen du; jantzi itsas urdin ilun bat, tintaz eta hariz egina oihal gainean, eta luma eta kaskabiloak. Pieza horrek txamanismoa aipatzen du eta *Putzua/Pozo* (2003) obran islatzen da, Gentz del Valleren erakusketetan beti agertu den elementuetako bat: ura, ingurune dinamikoa, dabilena, femenino sakonarekin konexio asko dituen. Jantzia irekia dago, eta barruan, itsaso zabal baten marrazkia barreiatzen da. *Vehículo II* obrak –maskara iradokitzaile eta oso ondo egindako bat, dada lengoia argikoa– egikaritzeko moduagatik Sophie Tauber artistaren piezak erakuzten dizkigu gogora. Gentzek artilea erabiltzen du, esgrimako maskara zahar baten gainean sareta-egitura bat ehunduz doana, zeinean lerro eta joko koloristek eraldatzen eta eraikitzen duten pieza paregabe eta eder hau.

Del bosque, Izpia/ Brizna, Ezezaguna /Lo desconocido eta Etxea /Hogar obretan, trazua, uhin-lerroa eta lerromakurra agertzen dira idazketan, formen unibertso bat eratzen duten keinu-hizkuntza bat sortuz. Obra horiek guztiak 2019koak dira, eta giza irudia, begetala eta organikoa nahasten dira. *Irradiazio/Irradiación I, II eta III* (2019) piezetako irudi gorriak, esmalteak eta bernizak kobrezko plantxen gainean, naturaren zatiak dira, bai elementu begetalak bai organikoak. Batzuetan, marrazkiak esekita dauden hariak estalita agertzen dira, eta lits horiek mugimendua, eta,aldi berean, eszenografia-dosi handiagoak ematen dizkiete obrei.

5 Rosa Olivares. El Paraíso estaba aquí al lado. 38. Exit. Paisajes silenciosos (2010).

6 <http://kmk.gipuzkoakultura.eus/es/ganbara-exposiciones/1869-gentz-del-valle-perspektiba-lekuz-kanpo-perspectiva-fuera-de-lugar>

7 Gentz del Valle Lersundi: "Desplazamiento, migración, nahia, frustrazioa eta utopia ukitzen ditu, Perspektiba (Lekuz kanpo) erakusketan. Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Koldo Mitxelena, 2017.

Naturaleza, afirma con contundencia Gentz del Valle pero lo hemos olvidado. Ahí está el problema". Del *locus amoenus*, del lugar idílico, edénico, de paz y sosiego hemos llegado a una naturaleza abandonada, totalmente dejada, que ya ha presagiado desde hace tiempo la alarma real de la situación, ya que la Naturaleza y nuestro planeta se encuentran en un estado de verdadera urgencia. Una naturaleza como la que plasma Gentz, con la obra *Zeharkaldi III/Travesía II*, la de una costa invadida por la basura, la de unos océanos en los que rezuman mares y mares de plásticos.

Si el Paraíso estaba aquí al lado, como dice Rosa Olivares⁵ hoy asistimos a una naturaleza como en estas fotografías de Gentz, en *Baldintzak/Las condiciones*, la de una naturaleza enmarañada, al albedrío de la maleza siempre invasora que finalmente lo cubre todo y en la que, por otra parte todavía se puede intuir la evocación romántica de la ruina.

En el dibujo *Amildegil/Abismo* (2019) vemos a través del reflejo del espejo, un gran magma a modo de explosión, que invade el espacio como si fuera una gran nube tóxica que nos advierte de la situación de peligro en la que se encuentra la Naturaleza. Un caos.

Ya en *Perspectiva (Fuera de lugar)*, 2017⁶ atrayente instalación en el Koldo Mitxelena la artista hacía cuestionarse al espectador sobre la manera de mirar el mundo y por ello brindaba una experiencia singular⁷ porque la imagen de la naturaleza solo se podía contemplar a través de los orificios de la pared, no en su totalidad.

Ahora, utiliza *Vehículo I*, (2019) un traje de un azul marino oscuro, realizado con tinta e hilo sobre tela, plumas y cascabeles, pieza que alude al chamanismo y que se refleja en *Putzua/Pozo* (2003), uno de los elementos siempre presente en las exposiciones de Gentz del Valle: el agua, un medio dinámico, que fluye, que tiene muchas conexiones con lo femenino profundo. El traje está abierto y en su interior se desparrama el dibujo de un extenso mar. La obra *Vehículo II*, una sugerente y muy bien realizada máscara con un claro lenguaje dada, nos evoca, por el modo de ejecución a piezas de la artista Sophie Tauber. Gentz utiliza lana que va tejiendo sobre una máscara antigua de esgrima un entramado de rejilla en los que las líneas y juegos coloristas transforman y construyen esta pieza singular y bella.

El trazo, la línea ondulante y curvilínea se inscriben en una escritura creando un lenguaje gestual que configura un universo de formas como en *Basokoa/ Del bosque, Izpia/ Brizna, Ezezaguna /Lo desconocido y Etxea /Hogar*, todas ellas de 2019 donde se mezclan la figura humana, lo vegetal y lo orgánico. Las imágenes rojas *Irradiación/Irradiación I, II y III* (2019) esmaltes y barnices sobre planchas de cobre son fragmentos de la naturaleza, tanto elementos vegetales como orgánicos. A veces, los dibujos se presentan velados por hilos colgantes, flecos que dan movimiento a las obras a la vez que otorgan mayores dosis de escenografía.

La ironía, el humor sutil y la retransca están también siempre presentes en las exposiciones de Gentz del Valle. Las prendas interiores femeninas,

5 Rosa Olivares. El Paraíso estaba aquí al lado. Exit nº 38. Paisajes silenciosos (2010).

6 <http://kmk.gipuzkoakultura.eus/es/ganbara-exposiciones/1869-gentz-del-valle-perspektiba-lekuz-kanpo-perspectiva-fuera-de-lugar>

7 Gentz del Valle Lersundi: "Alude al desplazamiento, a la migración, deseo, a la frustración y a la utopía. En *Perspectiva (Fuera de lugar)*. Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Koldo Mitxelena, 2017.

Ironia, umore sotila eta ezkutuko asmoa ere beti presente daude Gentz del Valleren erakusketetan. Emakumeen barruko arropak ere keinu eta bitarteko errepikakorrak dira, dagoeneko aurreko beste obra batzuetan agertuak, hala nola *Mendi urdinak*⁸ obran, non bularretakoak erabiliz artistak mendiri oniriko batzuk sortzen zituen. Hemen, erakusketa honetan, beira-arasa batean erakusten den *Vehículo III* obrarekin, emakumeen barruko arropak agertzen dira, ile naturalarekin erlazionatuta, eta *Hembra I* kobrezko obran, berriz, animalien identifikazioaz dihardu bere konnotazio anitzekin. Artistak, bestalde, animatu egiten du ikuslea *Jazoera/Contingencia* y *Hornikuntza/Equipamiento* (2019) instalazioetatik ibili dadin, sinboloekin beste metafora eta erlazio batzuk aurkitzeko eta haiei buruzko hausnartzeko.

Gentz del Valle, duela urte batzuetatik, Marrazketako irakasle titularra da Bilboko Arte Ederretako Fakultatean, eta *En ausencia del dibujo: su enseñanza tras la crisis de la Academia* (2001) entsegu garrantzitsuen egilea, Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratua⁹. Artistari interesatu zaio arte garaikideko kanon akademizista berriak planteamendu interesgarriekin zalantzan jartzea; eta hala egiten du bere *Arte, investigación y sobreadaptación*¹⁰ artikuluan.

Denok dakigu arte garaikidea manipulazio eta espekulazio zirkuitu handi batzuetan mugitu dela, non diruak asko agindu duen, eta batez ere erregistro oso maskulinizatuetatik, patriarkatu anker baten pean dagoen artearen sistema honen alderdi guztietan. Gentzek egunkari batean esaten zuen faltan botatzen zuela Oteizaren baliokide femeninoa euskal abangoardia artistikoaren errelatua azaltzeko¹¹, izan ere, abangoardia horretan ez dago emakume artista erreferenterik.

Arte garaikidean berriz itzuli behar da zentzutasunaren bidera, berdintasunarenera, ondo egindako lan eta ibilbidearenera, zer egiten den axolako duena eta ez nork egiten duen; halaxe adierazten du biribiltasunez Gentz del Valle artistak. Zintzotasunera eta ondo egindako lanera itzultzea; artista hau ez da inoiz atera bide horretatik.

son también guiños y medios recurrentes, ya plasmados en otras obras anteriores como en *Montañas azules*⁸ que, gracias al empleo de sujetadores la artista creaba unas oníricas montañas. Aquí, en esta exposición con la obra *Vehículo III* expuesta en una vitrina discurren prendas interiores femeninas en relación con pelo natural mientras que *Hembra I*, obra en cobre alude por su parte a la identificación animal con sus diversas connotaciones. La artista anima por su parte al espectador a transitar por las instalaciones *Jazoera/Contingencia* y *Hornikuntza/Equipamiento* (2019) para encontrar otras metáforas y otras relaciones con los símbolos y reflexionar sobre ellos.

Gentz del Valle es, desde hace ya años, profesora titular de Dibujo en la Facultad de BBAA de Bilbao, autora del importante ensayo *En ausencia del dibujo: su enseñanza tras la crisis de la Academia* (2001) editado por la Universidad del País Vasco⁹. A la artista le ha interesado también cuestionar con interesantes planteamientos los nuevos cánones academicistas dentro del arte contemporáneo como lo hace en el interesante artículo *Arte, investigación y sobreadaptación*¹⁰.

Es ya sabido por todos que el arte contemporáneo se ha movido en unos grandes circuitos de manipulación y especulación donde el dinero ha mandado mucho y sobre todo desde unos registros muy masculinizados en todos los aspectos de este sistema del arte bajo un patriarcado feroz. Gentz, aseguraba en un medio periodístico que echaba en falta el equivalente femenino de Oteiza para explicar el relato de la vanguardia artística vasca,¹¹ vanguardia en la que la ausencia de referentes de artistas mujeres ha sido total.

En el arte contemporáneo hay que volver a la senda de la sensatez, de la igualdad, la del trabajo y de la trayectoria bien hechos, donde lo que importa es lo se hace y no quien lo hace como afirma con rotundidad la artista Gentz del Valle. Vuelta a la honestidad y al trabajo bien hecho, ruta de la que nunca se ha salido esta artista.

8 <https://www.m-arteyculturavisual.com/2013/02/04/la-montana-interna-de-gentz-del-valle/>

9 Gentzen obra teknika honen erabileran oinarritzen da batik bat; artistak etengabe aldarrikatzen duen teknika eta artean funtsezkoa dena marrazkitik abiatzen baita guztia.

10 Gentz del Valle Lersundi. *Arte, investigación y sobreadaptación*. Sonda aldizkaria: Investigación en Artes y Letras, 7.a, 41.-52. or., 2018.

11 <https://www.elsaltodiario.com/arte/gentz-del-valle-equivalente-femenino-oteiza-upv-bi-mendi>

8 <https://www.m-arteyculturavisual.com/2013/02/04/la-montana-interna-de-gentz-del-valle/>

9 La obra de Gentz se basa fundamentalmente en el empleo de esta técnica, que la artista reivindica continuamente, y que es clave en el arte porque desde el dibujo parte todo.

10 Gentz del Valle Lersundi. *Arte, investigación y sobreadaptación*. Revista Sonda: Investigación en Artes y Letras nº 7, pp.41-52, 2018.

11 <https://www.elsaltodiario.com/arte/gentz-del-valle-equivalente-femenino-oteiza-upv-bi-mendi>

LANAK / OBRAS

- p. 4 **Mintzaideak/Interlocutores** (2019). Teknika mistoa paperean/*Técnica mixta sobre papel. 140 x 70 cm*
- p. 6-7 **Zeharkaldia/Travesía I; II. Zeharkaldia /Travesía II; Amildegia/Abismo; II. Eramailea /Vehículo II; I. Eramailea/Vehículo I; III. Eramailea /Vehículo III; Emea/Hembra; Hornikuntza/Equipamiento.**
- p. 8 **Emea/Hembra** (2019). Kobrezko plaka pintatua/*Placa de cobre pintada. 25 x 33 cm*
- p. 9 **Amildegia/Abismo** (2019). Tinta oihalean eta ispiluak/*Tinta sobre tela y espejos. 244 x 300 cm*
- p.10 **II. Zeharkaldia/Travesía II** (2019). Ikatza paperean eta lihazki errezela/*Carbón sobre papel y cortina de flecos. 148 x 272 cm*
- I. Zeharkaldia/Travesía I** (2019). Teknika mistoa paperean eta lihazki errezela/*Técnica mixta sobre papel y cortina de flecos. 140 x 320 cm*
- II. Eramailea/Vehículo II** (2019). Metala, larrua, oihala eta artilea/*Metal, cuero, tela y lana. 28 x 16 cm*
- p. 11 **II. Eramailea/Vehículo II** (2019). Metala, larrua, oihala eta artilea/*Metal, cuero, tela y lana. 28 x 16 cm*
- p. 12 **I. Zeharkaldia/Travesía I** (2019). Teknika mistoa paperean eta lihazki errezela/*Técnica mixta sobre papel y cortina de flecos. 140 x 320 cm*
- p. 13 **II. Zeharkaldia/Travesía II** (2019). Ikatza paperean eta lihazki errezela/*Carbón sobre papel y cortina de flecos. 148 x 272 cm*
- p. 14 **Amildegia/Abismo** (2019). Tinta oihalean eta ispiluak/*Tinta sobre tela y espejos. 244 x 300 cm*
- I. Eramailea/Vehículo I** (2019). Tinta eta haria oihalean, lumak, zintzarriak/*Tinta e hilo sobre tela, plumas, cascabeles. 160 x 129 cm*
- p. 15 **I. Eramailea/Vehículo I** (2019). Tinta eta haria oihalean, lumak, zintzarriak/*Tinta e hilo sobre tela, plumas, cascabeles. 160 x 129 cm*
- p. 16-17 **III. Eramailea/Vehículo III** (2019). Oysho markako bularretakoak, kuleroak, ile naturala/*Sujetadores marca Oysho, bragas, pelo natural.*
- p. 18 **Mintzaideak/Interlocutores** (2019). Teknika mistoa paperean/*Técnica mixta sobre papel. 140 x 210 cm*
- p. 19 **Hornikuntza/Equipamiento** (2019). Metalezko egitura, inprimatutako oihalak, brodatuak eta tintaz marraztuak, hainbat material/*Estructura de metal, telas impresas, bordadas y dibujadas con tinta, materiales diversos. 180 x 240 cm*
- p. 20 **Ilearen norabidea/La dirección del pelo** (2019). Lapitza paperean/*Lápiz sobre papel. 21 x 30 cm*
- Lutra** (2005). Teknika mistoa paperean/*Técnica mixta sobre papel. 29 x 39 cm*
- Aterpe, etxola/Refugio, Cabaña** (2019). Lapitza paperean/*Lápiz sobre papel. 21 x 30 cm*
- p. 21 **Barruko animalia/Animal de interior.** Gres lauzak/*Baldosas de gres. 176 x 22 cm.*
- Aurrekariak/Antecedentes** (2019). Metalezko egitura, plastilina, panty-ak, kristala, ballet oinetakoak, tinta oihalean, belusa/*Estructura de metal, plastilina, pantys, cristal, zapatillas de ballet, tinta sobre tela, terciopelo. 150 x 180 cm*
- p. 22-23 **I. Irradiazioa/Irradiación I** (2019). Pintura paperean/*Pintura sobre papel. 60,50 x 21 cm*
- III. Irradiazioa / Irradiación III.** Esmaltea eta berniza kobrezko plantxa gainean/*Esmalte y barniz sobre plancha de cobre. 66 x 25 cm*
- Jazoera/Contingencia** (2019). Egurrezko bi apal marrazkidun, paperaz eta kristalez apaindua, oihal inprimatuak, organtzako mantelina, adarra/*Dos baldas de madera con dibujos sobre papel y cristal, telas impresas, velo de organza, rama. Hainbat neurri/Diversas medidas*
- p. 24-25 **Baldintzak/Las condiciones** (2019). 5 argazki paperean/*5 fotografías sobre papel. 70 x 50 cm*
- p. 26 **Barruko animalia/Animal de interior.** Gres lauzak/*Baldosas de gres. 176 x 22 cm*

CV

Gentz del Valleren (Lekeitio, 1957) obra hainbat euskarritan planteatzen da, marrazkitik edo argazkitik instalazioraino. Bere lanean, irudiek hartzen duten zentzua definitzen duen alderdi bat da espazioaren tratamendua, ingurumenarekin duen harremanarekin zerikusia duten esanahiak sortuz eta arketipo kultural femenino/maskulinoei buruzko gaiak, naturarekiko harremana eta aurkakoen arteko korrelazioa planteatuz, garrantzi berezia emanez marrazkiaren erabilerari, adierazteko jatorriko modua den aldetik.

En ausencia del dibujo liburua argitaratu du (2001), bere tesian oinarrituta, zeinean zalantzan jartzen duen arte garaikidean marrazkiak duen baliozkotasuna.

Hauek dira bakarkako bere azken erakusketak:

2017 – *Perspectiva (Fuera de Lugar)- Perspektiba (Lekuz Kanpo)*, KMK, Donostia

2013 – *Montaña Interna (Barruko Mendia)*, Galería Vanguardia, Bilbao

2012 – *Escuchar o Entender el Mapa (Entzun edo Mapa Ulertu)*, exposición dentro del ciclo del proyecto de investigación Elaboración de un campo de imágenes, UPV-EHU, Bilbao

2011 – *Naturaleza Oculta (Izaera Izkutuan)*, Imatra, Bilbao

2006 – *Iniciación*, Galería Vanguardia, Bilbao.

La obra de Gentz del Valle (Lekeitio, 1957) se plantea sobre distintos soportes que van desde el dibujo o la fotografía hasta la instalación. En su trabajo el tratamiento del espacio es un aspecto que define el sentido que adquieren las distintas imágenes creando significados relacionados con su relación ambiental y planteando cuestiones relativas a los arquetipos culturales femenino/masculino, la relación con la naturaleza y la correlación entre opuestos, dando una especial relevancia al uso del dibujo como forma originaria de expresión.

Ha publicado el libro *En ausencia del dibujo* (2001), basado en su tesis, en la que se cuestiona la validez del dibujo en el arte contemporáneo.

Sus últimas exposiciones individuales son:

Ha participado en exposiciones en Museo Balenciaga (Getaria), Art Brussels, Art Cologne, Arco, Estampa, La Neomudéjar (Madrid), Museo de Bellas Artes (Bilbao), entre otras.

Su obra se encuentra representada en el Museo Artium de Vitoria y en el Museo de Navarra, en Pamplona.

Es profesora titular del Departamento de Dibujo de la Facultad de Bellas Artes de la UPV-EHU.

